

Abenduaren 19an  
**ABENDUALDIKO IV. IGANDEA (C)**  
*Caritas erakundearen jardunaldi berezia*

### **Sarrerako Oharpena**

Gaur, gure Salbatzailearen jaiotza-jaia gertu dugula, otoitz bihurtzen da gure itxaropena eta Isaias profetaren hitzekin esan dezakegu: «Isuri goitik, zeruok, ihintza bezala, isuri, hodeiok, garaipena euria bezala! Ireki bedi lurra eta eman beza Salbatzailea!». Behartsuek ere eta, beraiek bereziki, behar dute eta merezi dute Jainkoaren justizia eta salbamina. Horixe gogoratzen digu Caritasek, urtero bezala Eguberri-aurretik egiten duen ekinaldian. Hauxe da aurtengo kanpainaren goiburua: «Bizi den komunitatea eraikitzen dugu».

### **Homiliarako argibideak**

BEDEINKATUA ZU EMAKUMEEN ARTEAN

#### *Irakurgaiak*

Normala den bezala, Abendualdiko irakurgaien xede nagusia Jainkoaren Semearen jaiotza da. Itsumustuka bada ere profetek iragartzen duten promesa nagusia da. Bigarren irakurgaia, hebrearrei egindako gutunetik hartua, gizon egin den Jainkoaren Semearen indar santutzaileaz mintzo zaigu, baita bitarteko izateko duen indarrak ere. Jainkoaren nahia egitera dator. Era honetan “behin betirako” berreskuratuko du eroria zegoen gizadia eta Jainkoaren nahiaren arabera munduan gizaki izateko beste modu bat irakatsiko digu. Jainkoaren nahia gure salbamina da. Ebanjelioak Eguberri-aurreko gertakari samurra kontatu digu: Mariak bere lehengusu Elisabeti egindako ikustaldia. Mariak gertatu zaiona partekatu beharra sentitu zuen, ulertuko zuen norbaitekin partekatu beharra, ama bezala eta fededun bezala ulertuko zuen norbaitekin.

#### *Mezua*

Lukasen kontakizunak Jainkoaren dohainaren gizatasun handia geureganatzen laguntzen digu. Jainkoaren Hitza emakume baten egiazko semea da; emakume horrek, bere ama- eta emakume-maitasun guztia Jainkoaren betierekotasunaz osatua sentitu du. Mariaren bidez, Jainkoa geure egin da eta Berak gu bete gaitu, Zeruraino igotzen gaituen senitarte batean txertatuak izan baikara betiko. Jesusen maitasun-presentziak berri eta berregin duen gizadi berriaren hasiera, ispilu eta eredu da Maria. Bedeinkatua da bera eta bedeinkapen hori guganaino zabaltzen da. Denok gara, senide bezala, Jainkoaren seme-alaben familia bedeinkatu honetako kide. Fedearen eta Elizaren irudi den Mariari esker datorkigu Kristo eta salbamenaren iragarpena eta egia dakartza. Elisabetekin batera denok esan dezakegu eta esan behar dugu: Bedeinkatua Maria sinetsi duelako. Bedeinkatua eliza Jainkoarekiko fedea gorde eta helarazten digulako! Nola pentsa nezakeen nik Kristo nire etxeraino, nire bizitzaren barne-barneraino etor zitekeenik! Orduetik Jainkoarekin bakean bizi gintezke, jakinik egiazko erlijioa, egiaz Jainkoarekin bat egitea, bere borondatea maitatzea dela, Jesusen hitzean eta bizitzan azaltzen zaigun bezala: bizi nahiz hil Jainkoaren nahia eginez.

#### *Bizitzarako iradokizunak*

Eguberriaren atarian gaude. Egun hauetarako iradokizun onena Eguberria kristau eran bizitzen saiatzea da. Irakurtzeari, isiltasunari eta otoitzari astia emanez. Alaitasunari, kantuei eta maitasunez egindako opari txikiei toki eginez. Jesusen urtebetetzea da Eguberria baita gu guztiona ere, nolabait, Jainkoaren seme-alaba eginak baikara Kristogan, gizaki berriak, Kristoren bizimodura gonbidatuak. Isabelen profetia gugana iristen da: “beteko da Jaunak esan dizuna”. Mariaren fedea egiaztatu zuen hori. Mezetan Jainkoaren dohaina jasotzen dugu esker onez. Zorionak, adiskideok! Jainkoa gurekin da betiko, eta gu berarekin.

### *Bizi den komunitatea eraikitzen dugu*

Jainkoaren gertutasuna eta presentzia bikaina, pertsona zaurituenei gure bihotza eta gure elkarte zabalduz ospatu nahi dugu. Ezinbestekoa dugu hori gure kristau elkarteak Jesusen egiazko elkarte izateko. Caritasen gaurko kanpainak proposatzen digu zer nolako jarrera izan, Mesias, Samariar Onaren, ereduari jarraituz.

Eraiki dezagula pertsona guztien duintasuna eta giza eskubideak egiaz bizi dituen eta babesten dituen komunitate bat, pertsonen bizitzaz arduratuko dena, pertsona horiek dituzten prozesuetan lagunduz, eguneroko egoera bidegabeak salatuz, eta aukerak eta etorkizuna ahalbidetzeko lan eginez.

Eraiki dezagula bizitzeko estilo solidarioagoa eta inklusiboagoa egiaz bizi duen komunitate bat, gizarteari egiten dion ekarpenarekin bizi-estilo solidarioago eta inklusiboago hori eraiki eta proposatzen duena; pertsonen aniztasuna aintzat hartuta elkarrizketarako eta topaketarako guneak eragiten dituena; konfiantza, adiskidetasuna eta senidetasuna sortzen dituena; eta gure munduko oinazeari, pobreziari, bakardadeari nahiz indibidualismoari bizkarra eman nahi ez diona.

Eraiki dezagula Kreazioarekin senidetuta bizi den komunitate bat, guztion etxea den mundu hau hobeto zaindu beharraren kontzientzia hartzeko urratsak emango dituena, kontsumo-ohiturak berrikusiz eta keinu errazak eginez, bere buruarekin eta ingurunearekin harmonia handiagoan bizitzeko.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Eska dezagun, senideok, Jaunaren laguntza, bere errukiz mundura etor dadin eta salbamena ekar diezagun

*Erantzuna: Zatoz, Jauna, gu salbatzera!*

— Fededun guztiak prest egon daitezen Mariak bezala Kristo onartzeko eta hark bezala Bere hitzak bihotzean gordetzeko. Egigun otoitz. R/.

— Fedetik urrundu arren Eguberriak ospatzen dituzten gure senideek aurki dezatela Ebanjelioko berri ona, ez ilunpetako argi-izpi bezala bizitza osoa argitzen eta alaitzen duen argi iraunkor eta eder bezala baizik. Egigun otoitz. R/.

— Jaunaren Jaiotza ospatzea gerta dadila zalantzan daudenentzat argi eta barne-minez bizi direnentzat babes eta laguntza. Egigun otoitz. R/.

— Caritasek gaur gogoratzen dizkigun behar guztiak aintzat har ditzagula, gure eguneroko bizitza, eta bereziki Eguberritako festak neurritsu antolatzerakoan. Egigun otoitz. R/.

Jainko gure Jauna, Maria, Israelgo alaba apala, aukeratu zenuen gure artean betiko geratzeko bide; entzun gure otoitzak eta emaguzu Zure nahia onartuz bizitzea, promesa guztiak betetzera mundura etorri zen Zure Semea bezala esaneko izanez. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. R̄. Amen.